

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Euskararen Nafar Kontseiluak Euskarabideren eskumenak eta egitura indartzeko proposamena aho batez babestu du

Programa Akordioarekin bat etorriz, Kontseiluak hizkuntza sustatzeko eta normalizatzeko plan estrategiko batean lan egingo du

Miércoles, 26 de agosto de 2015

[Euskararen Nafar Kontseiluak](#), [Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari](#)

aholkularitza emateko eta partaidetzako erakundeak, legealdi berriko lehen bilkura berezia egin du gaur eguerdian. Bilkura horren helburua izan da, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo Hualdek Nafarroako

Gobernuari aurkeztuko dion erakunde autonomo horretako egitura organikoko proposamena aztertzea, bertan aztertu eta onar dezaten.

Olo kontseilaria buru izan duen Kontseiluan egungo 22 partaidetatik 17k parte hartu dute; kontseilu horrek aurkeztutako egitura organikoaren proposamena aho batez babestu du, eta eskumen nahiz funtzioei buruz Euskarabideko zuzendari kudeatzaile Mikel Arregik datozen lau urtetarako prestatutako zirriborroa onartu du ere.

Olo kontseilariak bilkura hasi du, Gobernu berriak [programa-akordio](#)an euskara sustatzeko arloan jasotako konpromisoak gogoraraziz, Euskarabideren jardueraren ardatz nagusia dena. Erakunde autonomoaren eskumenak nahiz egitura indartzearen alde egindako apustua dela azaldu du, ahalmena emateko legealdirako bere erronka nagusietako bati aurre egite aldera: euskara sustatzeko plan estrategiko bat egitea; hizkuntza horren presentzia eta erabilera irudi publikoan sustatzea eta herritar nahiz Gobernuaren arteko komunikazioa sustatzea; toki-erakunde zein gizarte-eragileekin lankidetzaren areagotzea Nafarroako gizartean euskararen irakaskuntza eta erabilera bultzatzeko.

Alde horretatik, azaldu da, legealdi berriarekin erakunde autoomooan zentralizatu egingo direla euskararen baliabideei nahiz haren sustapenari lotutako Nafarroako Gobernu bitarteko guztiak.

Beraz, Oloko erakunde autonomia eta haren eskumen-eremua indartzearen alde agertu da; horrenbestez, Foru Komunitateko gehiengo parlamentario berriak eskatutako euskararen eragile dinamizatzailetzat



jotzen du.

Gainera, legealdiko programa-akordioan jasotzen denez, Euskararen Nafar Kontseiluaren beraren birmoldaketa sustatuko da; gizarte guztiari irekitzea bilatu eta sustatuko da benetako partaidetza-erakunde bihur dadin Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika antolatzeko orduan.

Kontseiluaren ahobatezko bermearekin, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak organigrama berri eta indartzeko bere proposamena Nafarroako Gobernura eramango du ostiral honetan.